

Kaixo, nor zara?

10-30 minutu / +3 urte

Haur guztiak borobilean jarriko ditugu kaxa baten inguruan. Kaxatik Beebot robota aterako dugu eta lurrean utziko dugu.

Haurrekin hitz egingo dugu:

- Zer da?
- Zer egiten du?
- Zertarako dira dituen botoiak?

Haien burutazioak entzun ondoren, robotaren botoiak ukitzen utziko diegu eta zer gertatzen den ikusiko dugu. Denon artean, nola funtzionatzen duen asmatzen ahaleginduko gara eta agindu segida batzuk egiten ere saiaturiko gara.

Amaitzeko, robotarekin libreki jolasten utziko diegu.

Oharra: Kontuan izan sekuentzi bat programatzen hasten garenean, X botoia sakatu behar dugula aurrekoa ezabatzeko.



Helburuak	Konpetentziak	Materiala
<ul style="list-style-type: none">• Beebot robota ezagutzea• Botoien funtzionamendua aztertzea• Oinarrizko kausa-efektu kontzeptuak lantzea• Espazio orientazioa lantzea	<p>Diziplina baitakoak</p> <ul style="list-style-type: none">• Matematika OK2• Teknologia OK6 <p>Metadiziplinarrak</p> <ul style="list-style-type: none">• Pentsatzen ikasi OK8	<ul style="list-style-type: none">• Beebot robota• Kaxa bat• Beebot robotarentzat mozorroa (Aukeran)

Aukera gehiago

1. Robota aurkeztu beharrean, gelako txoko batean utz dezakegu. Haien izan daitezela robota aurkitu, piztu eta funtzionamendua ezagutzen dutenak.
2. Beebot aldeztu aurretik mozorrotua utz dezakegu. Gelan jorratzen ari garen gaiari loturiko mozorroa baldin bada, askoz hobe.